

Salbatoreko kapera Iratin

E.: eta bazena usaiak hor beila egiteko edo besta berezirik egiteko?

B.: urtian behin beila, eta hamost egun aitzinetik bazuxun meza bat, eta ua, Salbatoreko prosezionia erten zen hoaindako, meza emaiten zuxun, ta apez aitzinian, kuutzia aitzinian, apez kantuz, elizako kantietan joaiten zuxun, an kuutze at baita bide bazterrian, Haizkuutxe erten baita, kuutze burdinezko zer bat, hartan finitzen zuxun geo, amost egun aitzinetik, ta hamost eunen burian gero beila, ta ordian, denbora etan, denak zaldikilan, ta huinez, ta hola jiten zien beilaat, ta urrunetik jiten zien beilaat. Hara, orduko modak. Oai denak otoetan jiten txu oai, oai e bauxu meza urte guziz, urte guziz bauxu besta berri, zer da? Fête Dieu, besta berri egun artan duxu meza, igandian.

E.: eta beila noiz egiten zen, zein sasoinetan egiten zen?

B.: ekainian ola, uste ixit ekainian iten den.

E.: eta artzainak eta ere elgarretaratzen zitxun or?

B.: ba, ba, jiten zitxun hortik, Artxilondoko eskualdetik, eta beren lanak in-eta, eta jiten beilaat, eta ekartzen jatekoa, edo famliako noait beeretik jiten bazen, ek ekartzen zuten, ta an kanpoan jan, gero bezperak intzun ta berriz goiti, laneat, orduko modak.

E.: ixtorio bat bauxu, ez? Horren ingurian, kapera orren... Leienda bat... Ezautzen duxia xuk ixtorio ori?

B.: Ixtoria? Bah! Or in zixien... Leeno bazitxun, nunbait batxu ba ixkirioak, nik intzun tuanak zaharrer, bazitxun basajaunak eta basanderiak, ta artzian... Ba, laboari etxe atetaik, kabalen biltzeko jin zuxun goiti or Mendibeko zolako azken etxe oitakoa zuxun, Larribarria baita hor, ango, angoa zela erten dixie zaarrek, nik ez tut orik... Eta goiti jin zuxun, ta kabalen xeka zabilelaik, iziarriko gandeaille eder batekin, emazte bat ikusi zixin, hor, mendi... Salbatoretik eta goitixoo, nunbait, hor, potxa-arroka hegi zeaiten zilo zonbait bazuxun doaike han, eta iziarriko gandeaille ederra, argitzen zixin, eta an garbitzen ta ai zela, ta ola, ta mutil orrek, delako mutil bat baitzen, horrek erran ziakoxun eta “ez daazia prestatzen aalko antxeko bixkar artaano?”, ta baietz, gero kartzekotan, ta baietz. Puxka at urrundu zelaik, partitu zen eta lasterka espakatzeko. Mazte ua asi omen zen oiua ta marrumiaz, oiuka, ta Basajauna Apanizeko hegian zaldiz agertu zela. Ba, hori noaitek... Zaldiz agertu omen zen, eta hua orra gabe, Salbatoreko kaperaat agertu zen, ta han “Salbatore jauna, otoi, salba nezazu, present bat inen dauzut”, gandeailu ua Salbatoreri eman zila, ta han zeñia, Basajauna arribatu gabe zeñia asi omen zen, baita hor zeñu ttipi bat, ori asi, ta gero Basajauna ez zen urbildu, gisala. Ixtorio orik nok inak dira? Ez dakit. Ara, nik ikasi tuanak

orik ziren, ta erran omen zakon mutil orri zaldizko basajaun orrek erran zakon: “hi, urrikarri duk barurik arrapatze huten egun batez”, ta hantik ondoan, berriz e ala-ala kaaletaa jin, eta partitia zen goizian goizik, kaalen biltzeko edo ez dakit ze, ta Basajauna agertu, ta sakola guziak ikertu omen zitien, ta bezperan ogitan, ogi-joiten ta ai izanak, ogi pikor bat arrapatu ta ua jan zien; ez zen barurik, nik ola ikasi tut! Nik ola ikasi tut, eh!

E.: ez zena beste ixtorio bat ere Bitiriñako emazte baten inguruan edo lamina baten inguruan-edo?

B.: ez, ez, Bitiñako neska bat, eta arto-xuitzia zen Bitiñan, eta artoen tiratzeko arto-xuitzian, jendiak, auzoak-eta biltzen baitzien, leen hemen e hala iten zen, eta mako at bazuten, ta hua landan aatzia zuten, ta gauaz, ta bon, makoa falta zutela, ba, landan baratia, ta ua joain zela, ta, nik ola ikasi ut, eh! Geo ez dakit nola den, landaa joan zen gauaz neska, ta han makoin xeka zelaik, gaxtoek hartu zutela airian, ta Salbatoren laxatu omen zuten, doaike hilik, bere makoa eskian, ta hor laxatu, ta kapera ttipi bat ina da, kapera haundiain gaiñekaldian da etxola ttipi bat, ta hain potreta han da, bere makoa eskutan. Nik ola ikasi dut, Bitiñatik orra ekarri zutela.

E.: Saindu deitzen da kapera ttipi ori?

B.: Saindu, Saindu, ba, Saindia. Neska aindako zarri zuten Saindia zela doaike, kaperak salbatu zila, kaperak... Salbatoreko kaperak salbatu zila saindu ori. Salbatoreko saindia erten dakote orri, etxola ttipi orri. Ara, nik ikasi tuan ixtoriak, eh! Gero, beste noaiti re nai bauzie galdin, ara.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika
Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy
Doktorego-tesia Gasteiz, 2021
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa
Letren Fakultatea
UPV-EHU
Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.
Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala